



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Aldi baterako kontratazio-zerrenda sortzeko deialdia

Lanpostua: Informazioaren Kudeaketako teknikaria

GALDERAK

Lehen ariketa
Denbora, gehienez: 60 min.

- Ez ireki esan arte.

| | |
|----|--|
| 1. | Herritarrei Laguntza Integrala emateko Planak ezartzen duenaren arabera, zein hiru agenteri zuzentzen zaie Udalaren kanal anitzeko arreta? |
| 2 | Herritarrei Laguntza Integrala emateko Planak bost dossier edo espediente tipologia bereizten ditu. Zein dira horiek? |
| 3 | Aipa itzazu lan-talde batek eduki beharreko bost ezaugarri. |
| 4 | “Adeitasunezko zerbitzuak”, herritarrei arreta eman eta haien beharrianak entzuteko bitartekoa den aldetik, prozedura guztiekin zerikusia duten zeharkako zerbitzuak barne hartzen ditu. Zein dira zeharkako zerbitzu horiek? |
| 5 | Nola deritza administrazioaren interakzio elektronikoak gorde eta berreskuratzeko sistemari, direla herritarrekiko interakzioak, direla kanpoko entitateekikoak (eragindakoak, interesdunak eta beste administrazio batzuk)? |
| 6 | Zein bi oinarritzko zerbitzuek ahalbidetzen dute informazio eskaerak ebaztea, herritarrek formulatzen dituzten terminoetan? |
| 7 | Zer da Dreamweaver CS3 bat? |

| | |
|----|--|
| 8 | Kanal anitzeko estrategia bat erabiltzeak herritarrei emandako arreta hobetzeko balio du. Horretaz gain, aipa itzazu estrategia horren beste hiru helburu osogarri. |
| 9 | Aipa itzazu herritarrentzako arreta osatzen duten lau jarduera mota. |
| 10 | Zein kontsulta eta eskaera mota jo behar dira lehen mailakotzat edo oinarrizko mailakotzat? |
| 11 | Aipa itzazu Web 2.0ko tresna erabilien arteko hiru. |
| 12 | Defini ezazu “thesaurus” terminoa. |
| 13 | Informazioa berreskuratzeko prozesuan, zer da “isiltasun dokumentala? Eta “zarata dokumentala”? |
| 14 | Bilaketa estrategia batean, zein da lan egiteko oinarrizko prozedura? |

| | |
|----|---|
| | |
| 15 | Aipa itzazu, eta deskribatu, weben informazioa berreskuratzeko hiru metodo. |
| 16 | 11/2007 Legearen arabera, zein dira herritarrek administrazio publikoarekin harremanak izateko balia ditzaketen izenpe elektronikoko hiru sistemak? |
| 17 | Zein da kazetaritzako albiste baten egitura? Zein zatik osatzen dute? |
| 18 | Datuak Babesteko Lege Organikoak ezartzen duenaren arabera, badira "bereziki babestu" beharreko datu pertsonalak, zeinak eragindakoak berariaz eta idatziz baimena eman ezean ezin baitira tratatu. Zein dira datu horiek? |
| 19 | Erabilerraztasuna. Kontzeptua. Deskriba itzazu bost gomendio. gutxienez. |
| 20 | Aipa itzazu marketin elektronikoko bost tresna. |